Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

786

14/2011 DEKRETUA, otsailaren 8koa, Elorrioko Industrialdea SA sozietate publikoa azkentzeko baimena emateko dena.

Otsailaren 20ko 39/1990 Dekretuaren bitartez, Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial SA baltzuari baimena eman zitzaion, zertarako-eta Elorrioko Industrialdea SA (lehenago San Jose Industria Poligonoa deitzen zena) sozietatea sortzeko. Eta sozietate horren helburua hauxe zen: Elorrioko Betsaide Industria Poligonoari doakionez erosketa, eraikitze, sustapen, kudeaketa eta salmenta. Hartarako, bi fasetan eraiki dira industria-pabiloien konplexu bat eta bulego-erakin bat, errentamendu-sistema batez kudeatzen direnak, konplexu horretan instalaturiko enpresentzako erosketa eta salmenta zuzenerako aukerarekin.

Sozietateak bete du markaturiko bere helburua; hortaz, Administrazio Kontseiluak erabaki du Batzar Nagusiari honako hau proposatzea: Sozietatea desegin eta likidatzea, eta kudeaketa Sprilur SAri pasatzea, horixe baita gehiengodun akzionista. Eta halaxe erabaki zen, 2010eko ekainaren 2an Administrazio Kontseiluak egindako batzarrean.

Eta orain arte esandakoarekin bat etorriz, bidezkotzat jotzen da Elorrioko Industrialdea SA sozietate publikoa desagerraraztea; horretarako, Jaurlaritzak dekretua eman behar du, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 20.3 artikuluan.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko otsailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

Artikulua bakarra.– Elorrioko Industrialdea SA sozietate publikoa azkentzeko baimena ematea, desegin egin baita; hartarako, betiere bidezko izapideak beteaz.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

786

DECRETO 14/2011, de 8 de febrero, por el que se autoriza la extinción de la Sociedad Pública Elorrioko Industrialdea, S.A.

Mediante Decreto 39/1990, de 20 de febrero, se autorizó a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A., la creación de la sociedad pública Elorrioko Industrialdea, S.A. Su objeto social es la compra, construcción, promoción, gestión y venta del Polígono Industrial Betsaide de Elorrio (antes llamado Polígono Industrial de San José). Para ello se ha construido en dos fases, un complejo de pabellones industriales y un edificio de oficinas, gestionados mediante un sistema de arrendamiento con opción de compra y venta directa a las empresas instaladas en dicho complejo.

La sociedad ha cumplido con el objeto social marcado, por lo que su Consejo de Administración ha considerado conveniente proponer a la Junta General la disolución-liquidación de la sociedad pasando la gestión a Sprilur, S.A. por ser el accionista mayoritario. Así se acordó en la reunión del Consejo de Administración de fecha 2 de junio de 2010.

De conformidad con todo ello, se estima conveniente proceder a la disolución de la Sociedad Pública Elorrioko Industrialdea, S.A., para cuya extinción se precisa de Decreto del Gobierno, de conformidad con el artículo 20.3 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 8 de febrero de 2011,

DISPONGO:

Artículo único.– Autorizar la extinción de la Sociedad Pública Elorrioko Industrialdea, S.A. por disolución de la misma, previo cumplimiento de los trámites pertinentes.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 8an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.